


Morgaetxebarria, txapelik txapel



Aimar Morgaetxebarria pilotari zornotzarra sekulako mailan dabil. Bata bestearen atzetik hiru txapel jantzita amaitu zuen iazko urtea: Bizkaiko txapelketa, Diario Vasco eta Zaldibarko Olazar. Gaur bertan beste final bat jokatu du Elgoibarren. Orain urte bi eta erditik Baiko enpresagaz entrenatzen da. • 26



Atxondoko ludotekan kalteak eragin dituztela salatu dute

Marixurrike aisialdi taldeak Atxondoko ludotekan berriro ere kalteak eragin dituztela salatu du, eta, gainera, oraingoan emakumeen kontrako pintadak ere egin dituztela. "Hau ez da broma bat, kalte izugarriak eragiten dizkigute. Gainera, ez dugu horrelako jarrera matxistarik onartuko", azaldu dute Atxondoko ludotekako arduradunek. • 6



Indarrak batzen jarraitu gura dute, Durangaldeko herritarrak eskualdeko ekoizleen produktuekin elikatu daitezzen

'Elikatu Durangaldea' dinamika eskualdeko produktuak ezagutarazteko jaio zen orain sei bat hile. Ekoizleek, dendariak, ostalariek eta Urkiola Landa Garapenak komunitate indartsu eta egonkor bat sortu gura dute, herritarrek tokiko produktuekiko jarrera errotu dezaten. Irudian, dinamikako parte hartzaile bat: Esti Urrutxurtu. Bere denda eskualdeko produktu ugari dago. • 2-3

IURRETAKO HEZKUNTZA eremua Olaburu auzunea, IURRETA --AURREMATRIKULAZIOA-- Urtarrilaren 17tik 28ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI 946 810 937  OROBIOGOITIA 944 288 000



2-12 urte
MAIZTEGI
HH eta LH



12-18 urte
OROBIOGOITIA DBH eta
Batxilergoa

Elikatu Durangaldea: 48 ekoizleren eta 12 komertzioaren elkarlana, herritarrek eskualdeko produktuekin elikatzeko

Durangaldeko ekoizleak, komertzioak eta Urkiola Landa Garapena eskualdeko produktuak ezagutarazteko lanean dabilta, tokiko ekonomia sustatzeko



Ana De la Mazak kontserbak egiten ditu Garaiko Goierri auzoan; familian Garai garagardoa ere ekoizten dute.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Sei hilabete igaro dira Durangaldeko baserritar ekoizleek, dendariak eta Urkiola Landa Garapenak *Elikatu Durangaldea* proiektua aurkeztu zutenetik. Proiektuak ikusgaitasun handiagoa eman gura die gure eskualdeko baserritarrek ekoizten dituzten produktuei. Komertzioak eta tabernak arduratzen dira produktu horiek saltzeaz eta kontsumitzailearengana heralazteaz, baina egitasmoaren bultzatzaileek pauso bat gehiago eman gura dute. Urkiola Landa Garapeneko Ibon Goitia teknikariaren berbetan, "Durangaldeko tokiko produktuak eskualdean saltzen diren arren, ez dute behar besteko ikusgaitasunik. Dendariak eta ostalariek egiten duten esfortzuak ez du merzitako saria" izaten. Hori dela eta, komunitate "indartsu, dinamiko eta egonkor bat" sortu gura dute, herritarrek tokiko produktuekiko jarrera errotu dezaten.

Kontzientzia zabaltzen

Goitiak dioenez, janari osasuntsuagazko kontzientzia apurka-apurka zabaltzen dabil Durangaldeko herritarren artean. Sektoreak baditu egonkortzeko aukerak. Baina baditu arriskuak ere. Izan ere, Goitiak aipatu du azken urteotan "jaitsi" egin dela

nekazari eta abeltzain kopurua, eta errelebo falta "arazo handia" izatera ailegatu dela. Ostalariei eta komertzioei buruz ere, beste horrenbeste. Tokiko komertzioak eta ostalaritzak daukaten gainbeherako joerari aurre egiteko ekimen eta aliatu berrien premian daude. "Erosteke moduak asko aldatu dira, eta bertoko produktuak erosteko ohitura ere jaitsi egin da", azpimarratu du Goitiak. Egoera horri aurre egiteko, beharrezkotzat jo

"Erosteke moduak asko aldatu dira, eta bertoko produktuak erosteko ohitura ere asko jaitsi da"

du Durangaldean ekoizturiko elikagaiak bertoko kontsumitzaileen eskura ipintzea.

Proiektura atxikitako dendariak eta ostalariek *Elikatu Durangaldea* izeneko ikur identifikatiboak dituzte establezimenduetan. Horrez gainera, dinamikaren bultzatzaileek aurreratu dute datozen asteetan ekoizleen zein denden banakako aurkezpenak egiten hasiko direla sare sozialetan eta buletinetan. Honako erreportaje honetan euretariko batzuk ezagutuko ditugu.

"Supermerkatuak ez ditut lehiakide zuzen lez ikusten, guk kalitatea eskaintzen dugu eta"

Beñat Alberdi Andreu (Durango, 1993) Alberdi harategiko arduradunetarikoa bat da. Zortzi urte daramatza bertan beharrean



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Alberdi harategiak lokal bi ditu eskualdean. Bat Durangon dago, eta Zornotzan bestea. Beñat Alberdi Durangoko dendan egoten da. Harategiko hirugarren belaunaldia da berea.

Zelakoa da erosleen jarrera? Badute hemengo produktuak kontsumitzeko ohiturarik?

Supermerkatu handietan erosten duen jende asko dago, baina badago bertakoa laguntzen duen herritar ugari ere. Guk supermerkatuen aldean eskaintzen duguna kalitatea da gehienbat. Supermerkatuetan, ontziraturiko okela topatuko duzu. Eta ez duzu jakingo okela horri zein tratamendu eman zaion ez eta nondik datorren ere. Ez duzu

zuzeneko informazio hori. Hemen goa, oster, badakizu eguneroko produktua dela, oso freskoa dela. Aitak transmititutako filosofiari jarraituta esango nuke, supermerkatu bat ez dela gure konpetentzia zuzena. Ez ditut lehiakide legez ikusten. Haiek ez dituztelako guk ditugun produktuak. Guk kalitatea eta bezeroarekiko bikaintasuna eskaintzen ditugu.

Bezeroek ba al dute okelaren jatorriari buruzko jakin-minik? Galdetzen dizute nondik dakarzun?

Askok bai, galdetzen dute okela nongoa den, nondik ekartzen dugun. Eta gero badira beste asko, gudan konfiantza handia dutelako, galdetu ere egiten ez digutenak. Gure hornitzaile nagusia Izurtzakoa da. Txahalak,

arkumeak zein txerriak hartzen dizkiogu. Baina baditugu hornitzaile gehiago ere. Larrinagatxu, Maume, Markina eta Gauteigiz-Arteaga aldeko txahalak hartu izan ditugu. Ingurukoak eta Bizkaikoak.

"Gure hornitzaile nagusia Izurtzakoa da, baina baditugu Larrinagatxu, Maume, Markina edo Gauteigiz-Arteaga aldeko hornitzaileak ere"

Ez da ohikoa harategietan zure moduko arduradun gazteak topatzea.

Niri negozioa familiatik etorri zait, baina ikasi beharrekoak ikasi eta indarra batu dut honegaz aurrera egiteko. Komertzialak etorri ohi zaizkit negozioko arduradunagaz berba egin gura dutela esatera. Askok sorpresa hartzen dute arduraduna ni naizela erantzuten diedanean.

“Gazteek garrantzi gehiago ematen diote produktu ekologikoari; helduek, tokikoari”

Esti Urrutxurtu Goikoetxea (Abadiño, 1975) 'Firue' dendako arduraduna da. Abadiñoko Traña-Matiena auzoan du denda



ABADIÑO • EKAITZ HERRERA
Irailen hiru urte beteko ditu Firue dendaren ardurapean. Esti Urrutxurtuk orain arteko ibilbidearen balantze positiboa egin du. Durangaldeko produktu ekologiko ugari topatu daiteke bertan.

Zure dendako produktuen artean, zenbat izan daitezke Durangaldekoak?
Ez nuke zehatz kalkulatzeko jakingo, baina bota %15. Etxanoko jogurta eta gazta, Garaiko garagardoa eta kontserbak, Atxondoko ezti, Izurtzako zukuak, Elorrioko berakatz beltza, Abadiñoko berdurak, Otxandioko marmeladak eta zukuak, Erliako arrautzak,... denetarik jeneroa eta hainbat lekutakoa

saltzen dut dendan. Sasoiaren arabera, gauzak aldatzen joaten dira. Topatu daitezke bertako produktu gehiago ala gutxiago. Hona datozen bezeroek ba al dute Durangaldeko produktuak eskuratzeke grina?

Bai, bai. Galdetu egiten dute. Zeinena da honako produktu hau? Bai, horrek eragiten du. Jende nagusiak, plazara joateko ohitura duenak, adibidez, ekoizleak ezagutu ohi ditu, eta galdetzen du ea ekoizlea nor den. Bestalde, hemen eskaintzen duguna bertakoa eta ekologikoa da. Eta iruditzen zait gazteek garrantzi gehiago ematen diotela lehenengo faktore horri, ekologikoari. Nagusiek, oster, bertakoa izateari egiten diote azpimarra.

Ekoizleak ezagunak izateak hurbiltasuna ematen dit. Garrantzi handia ematen diot hartu-eman sortzeari, zalantzak argitzeari. Konfiantza ematen dit

Zelako garrantzia ematen diozu tokiko produktuari?
Ekoizleak ezagunak izateak hurbiltasuna ematen dit. Abantailak ditu. Momenturen batean zeozer falta badut edo arazoren bat badago, bertara joan naiteke, erraztasunak eman... Garrantzi handia ematen diot hartu-eman sortzeari, zalantzak argitzeari. Konfiantza ematen dit. Lasaitasun moduko bat ematen dit.

“Elikatzea ekintza politikoa da, kontzientzia izatetik praktikara pasatu behar dugu”



Ana De la Maza kontserbak eta Garai garagardoa saltzen Garaiko abenduko azokan.

GARAI • EKAITZ HERRERA
Ana De la Maza Llagunok (Algorta, 1991) askotariko kontserbak egiten ditu bere ortuko berduzetatik eta fruta-arboletatik abiatuta. Garai Kontserbak izenpean merkaturatzen ditu.

Zelakoa da herritarrek tokikoarekiko dugun kontzientzia?
Maila teoriko batean badugu tokiko produktuekiko kontzientzia, garraio aldetik gutxiako kutsatzekoa, mimo handiz sorturiko produktuak direla pentsatzekoa. Baina, gero, gutxiengo bat da jaten duenari eta saltzaileari errepartzeko diena. Azken finean, elikatzea egunerokotasunean dugun ekintza politikoa da. Beraz, kontzientzia horretatik praktikara badago pauso bat. Gaur egun dugun bizi erritmoagaz, jatea tramite bat da. Ez da elikadura

bere osotasunean hartzen. Eta Durangaldean aukera asko dugu bertako produktuekin bakarrik elikatzeke. Urte bi eta erdi pasatu dira kontserbekin lanean hasi zinenetik. Ez nekien zelako harrera izango nuen. Aurrez aurre eta denda txikiekin nabil lanean. Harrera polita izaten ari da. Ahoz ahoak asko lagundu dit. Bestalde, ikusten dut eskualdean bertakoa sustatzeko dendak eta tabernak sortzen ari direla. Horrek babes handia ematen du. **Zelako hartu-eman sarea duzue ekoizleek?** Ekoizleok aurrera begirako proiektuak ditugu esku artean, baina ezin dut oraindik ezer aurreratu. Denok batuta indartsuak izango gara eta gure salmentak hobetzea lortuko dugulakoan nago.



Gure ikasleen ahotan

“Lantegietan egiten ditugun praktikak eta irakasleekiko dugun hurbiltasuna azpimarratuko nuke”



MAIALEN SAGASTIGORDIA URIONDO
(Zornotza, 19 urte)
Humanitate Digital Globalak (HDG) gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Nik orain arteko ikasketak Zornotzako El Carmelo ikastetxean egin ditut. Nire zaletasunei dagokienez, bidaia, telesailak ikustea, eraketak egitea eta lagunekin irteera dira gustuko ditudanak.

Zergatik aukeratu zenuen Humanitate Digital Globalak (HDG) gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Bigarren batxilergoan galduta nengoen, ez nekien zer ikasi eta unibertsitate guztietako graduak ikusi ondoren, nire aukeretako bat HDG izan zen. Ohiko karrerak ez zidatenez arreta deitzen, gradu honi aukera bat ematea erabaki nuen, arlo desberdinak lantzen zituen gradu bat zelako. Azkenean, gustuko nuen gradua bertan bakarrik zegoelako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Baliagarria izan da, lantzen ditugun gaiak erakargarriak iruditzen zaizkidalako. Horrez gain, praktikak egiten ditugu lantegietan, bertan klasean ikasitako teoria praktikan jartzen dugu.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Hasieran oso arraroa egin zitzaidan metodologia honetara ohitzea. Bigarren batxilergotik nentoren, aste guztietan azterketak prestatu behar izanak izugarriko urduritasuna sorrarazten zidan. Unibertsitatean, proiektuak lan egiten dugu, astero taldeko lanak eginez. Horrez gain, klasean jasotako teoria barneratzeko hausnarketak ere egiten ditugu, bakarkako eguneroko batean islatuz.

Unibertsitateetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?
Ikasgelan dugun giroa azpimarratuko nuke. Baita ere, gure irakasleekiko dugun hurbiltasuna. Datoren ikasturteari begira, Erasmuseko bidaia egitea oso erakargarria iruditzen zait.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Oraindik ez dakit zer egingo dudan, oraintxe bertan bigarren mailan nago, uste dut denbora beharko dudala pentsatzeko zer egin nahi dudan etorkizunean.

Durangon martxan ipini dute trenbide zaharreko proiektuaren inguruko parte hartze prozesuaren lehenengo fasea

Udalak erakusketa bat, informazio-bilerak eta tailerrak antolatu ditu parte-hartze prozesuaren lehenengo zatirako; webgunea ere ipini du martxan: 'peri.durango.eus'. Urtarrilaren 28ra arte egongo da erakusketa ikusgai, Ezkurdin



Ezkurdin dauden lau moduluetan informazio guztia jaso daiteke.

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Durangoko Udalak Eusko Jaurlaritzagaz akordioarako oinarria adostu du trenbide zaharreko lurretan proiektua martxan ipintzeko. Baina, egitasmo hori zehazteko, parte hartze prozesua ipini du martxan. Marina Blazquez Gonzalezek diseinatu du parte hartze prozesua. "Prozesu hau prozesu bizi bat da eta horrela erakutsi behar da. Zer egin erabakitzeke, garrantzitsua da informazioa edukitzea", azaldu zuen joan zen astean egindako aurkezpenean. Informazio hori guztia lau moduluetan banatuta dagoen erakusketa batean batu dute. Lehenengoan, lurperatzearen ibilbide historikoa ikusi ahalko da, 90eko hamarkadatik hasi eta 2021eko

martxoaren 14ko galdeketara arte; bigarrenean, Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren akordioaren oinarriarako gakoak ikusi ahalko dira; hirugarren moduluak proiektuaren alde teknikoak agertzen dira; eta laugarrenean, parte-hartze prozesuan zehar baturiko materiala egongo da. Urtarrilaren 28ra bitartean egongo da ikusgai.

Erakusketaz gainera, Durangoko Udalak saio eta tailer didaktikoak antolatu ditu. Hurrengo saioak urtarrilaren 19an eta 20an egingo dituzte, San Agustin kultur gunean, 18:00etan. Tailerrak hilaren 22an eta 23an egingo dituzte, 10:00-12:30 eta 16:30-19:00 bitartean. Parte hartu ahal izateko, webgune berrian izena eman behar da, urtarrilaren 11tik aurrera (peri.durango.eus).

Lehenengo fase hau amaitu eta gero, Durangoko Udalak bigarren fasea ipiniko du martxan. Bertan, durangarrek aukera izango dute "bideragarriak diren proposamenak" bozkatzeko.

Gregorio Vicario preso durangarra Euskal Herriratuko dute

Orain, Eusko Jaurlaritzak erabakiko du Burgosko espetxetik EAEko zein kartzelatarara ekarriko duten



Sarek deitutako mobilizazioa Durangon.

DURANGO • A.M./J.G.

Espainiako Espetxe Erakundeek abenduaren 30ean jakinarazi zuten, zazpi euskal preso Euskal Herriratuko dituzte. Tartean, Gregorio Vicario Setien preso durangarra dago. Eusko Jaurlaritzak erabakiko du Burgostik EAEko zein kartzelatarara ekarriko duten. Etxeratek gaitasun larriak dituzten gainerako 19 euskal presoek ezartzen zaizkien "neurri berak" eskatu ditu Vicarioarentzat. Izan ere, azaroan Burgosko espetxetik Leongo ospitalera eraman zuten "bypass koronario" bat ipini eta ebakuntza egiteko. Gorka Lupiañez preso durangarra ere Euskal Herriratu dute. Logroñotik Martuteneko kartzelara lekualdatu dute.

Bestalde, Sarek euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko urtarrilaren 8an herririk herri deituriko kontzentrazioetan milaka lagun mobilizatu ziren Durangaldean.

Durangoko Udalak umeentzako jolasgune estalia ipini du Landako Gunean

Behin-behineko eremua maiatzera arte egongo da zabalik

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak Landako Gune moduluak bat egokitu du umeek jolaserako eremu estali bat eskaintzeko. Espazio berriaren izena Jolas Librerako Gunea da eta maiatzera arte egongo da

zabalik, astelehenetik domekara, 17:00-20:00 ordutegiagaz. Barruan umeentzako jolasak ipini dituzte. Gunea 0tik 6 urtera bitarteko umeentzat izango den arren, ume nagusiagoek ere izango dute erabiltzeko aukera.



Landako Gunea.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko urtarrilaren 14a
20. urtea - 877. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Larrasoloeta kalea zabaldu eta ingurua urbanizatzen hasi dira

Zesteroaren etxea eta ondoko eraikina bota dituzte. Espazio horretan etxebizitzak eta berdegune bat egingo dituzte

DURANGO • JONE GUENETXEA

Larrasoloeta kalea itxuraldatuta geratu da Zesteroaren etxea eta ondoko eraikina bota eta gero. Kaleko puntu horretan bidea estutu egiten da. Udal ordezkarien esanetan, mugikortasun aldetik herri barruko eratzuneko puntu arriskutsuenetariko bat izan da. Martxan ipini duten urbanizazio proiektuagaz, bidea zabaltu eta zebrabide bat egingo dute segurtasuna hobetuz, Aritz Bravo zinegotziak azaldu duenez. Oinezkoentzako bidea ere eraikiko dute. Izan ere, Larrasoloeta kalea herriko sarrera-irteera puntu bat da eta trafiko handia izaten da.

Birginosteko urbanizazioa

Larrasoloetako puntu hori Birgi-

nosteko urbanizazio unitatearen barruan dago. Plan horretan, Kurutzagako atzeko aldeko etxez gainera, Larrasoloetako urbanizazioa batzen da.

Mugikortasun aldetik herri barruko eratzuneko puntu arriskutsuenetariko bat hobetuko dute

"Larrasoloetako eraikin biak botata, beherantza geratzen den espazio horretan etxebizitzak eraikiko dira, bai libreak eta baita babesekoak ere", azaldu du Bravok. Era berean, berdegune bat ere egingo dute.



Larrasoloeta kalea.

Urritxeko Erasmus+ ikasleek izaera soziala duen enpresa bat sortzeari ekin diote

Bestalde, institutuko hamar bat ikaslek atea zabalik dute egonaldiak Europako hainbat ikastetxetan egiteko



Zornotzako Urritxe institutuko ikasleak.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Urritxeko ikasleek Erasmus+ programaren bigarren zatia ekin diote. Ekintzailatza gaiak hartu dituzte ardatz, eta izaera sozialeko enpresa bat sortzea izango dute helburu hemendik aurrera. Elkartruke programari eskerrak Zornotzako ikasleek Europako hainbat ikastetxetan egingo dituzte egonaldiak. Eta, alderantziz. Europako ikasleak Zornotzara etorriko dira egonaldia bertan egiteko. Turkiatik, Txekiar Errepublikatik, Italiatik, Portugaldik eta Errumaniatik ailegatuko dira Zornotzara. Udalak esker oneko berbak izan ditu joan zein etorri egingo diren ikasleentzat. Ainhua Salterain zinegotziak dioenez, Erasmus+ programa "erronka bat" izango da ikasleentzat. Ikasleek "aberasgarriak izango diren esperientzia ahaztezinak" biziko dituzte. Bestalde, udal ordezkariak Urritxe institutuko irakasleek egindako lana goraipatu du.

Garaitarrek San Anton eguneko erremata egingo dute datorren astelehenean

Elizabarrin egingo dute, 12:00etako meza amaitutakoan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Porru-sortak, pastelak zein intxaurotzarak prest daude enkantera irteteko Garain. Garaitarrek huts egin ezineko ohiturari eutsiko diote hilaren 17an, San Anton eguneko erremata

tradizionalari. Iaz frontoira lekuak datu behar izandako saioa Elizabarrira bueltatuko dute aurtengo. 12:00etako meza amaitu eta gero egingo dute. Lazaro Milikua arduratuko da enkantea dinamizatzeaz.



2020ko urtarrilean egindako erremata.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
Igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATzea

HARRAPATZE
EGOKERAK

IGOGAILUKO
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

Atxondoko ludoteka kaltetu eta emakumeen kontrako pintadak egin dituztela salatu dute

Marixurrike aisialdi taldeak berriro ere ludotekan "kalte izugarriak" egin dizkietela salatu du



Ez da lehenengo aldia Atxondoko ludotekan kalteak sortzen dituztena.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko pare bat urte pasatu dira Atxondoko ludotekan "baimenik barik" sartu eta norbaitek dena "hankaz gora" ipini zuenetik lehenengoz. Harrezkero, hainbat bider errepikatu da egoera hori. "Opor sasoian, udan, Aste Santuan, Gabonetan, sarritan sartu zaizkigu ludotekara, eta dena hankaz gora ipini izan digute. Orain ere berdina gertatu zaigu. Hau ez da broma bat, kalte izugarriak eragiten dizkigute eta. Gainera, gurea herriko zerbitzu bat da eta errespetu falta bat iruditzen zaigu egiten dabilatzana", azaldu dute Marixurrikeko kideek.

Oraingoan, gainera, atea apurtu eta kalte materialak eragiteaz gainera, emakumeen kontrako idatzia agertu direla salatu dute Marixurrikeko kideek: "Emakumeak sukaldara" eta halakoak idatzi dituzte". Ludotekako arduradunek adierazi dute ez dutela onartuko horrelako jarrera matxistarik.

Bestalde, dagoeneko Ertzaintzan salaketa ipini dutela jakina-

Ludotekako arduradunek adierazi dute ez dutela onartuko horrelako jarrera matxistarik

razi dute, eta berriro horrelakorik ez gertatzea itxaroten dutela nabarmendu dute.

Guraso taldeari eskertuta

Bestalde, ludotekako arduradunek jakinarazi dute oso eskertuta daudela herriko guraso taldeagaz. "Gertatutakoaren berri izan zutenean, guri zelan lagundu pentsatzen hasi ziren. Ludotekara sartu zaizkigun bakoitzean, jostailuak eta materiala txikitu dizkigute eta ezer barik geratu izan gara. Orain, gurasoen laguntzari eskerrak, bagabiltza jostailuak eta material berria jasotzen", amaitu dute.

Megako langileek diru bilketa egin dute lankideei laguntzeko

Berrizko Mega enpresako langileen ERTEak abendutik martxoaren 31ra arte iraungo duela diote sindikatuek

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Melchor Gabilondo (Mega) enpresako langileak garai go-gorak bizitzen dabilta. Azaroan kalera protestan irteten hasi ziren, euren egoera salatzeko eta hitzarmen berri bat sinatzeko. Abendutik langileak ERTEan daude.

Langileentzat garai zailak dira; hala ere, elkartasuna nagusi da euren artean. "Azarotik soldatak ez ditugu %100ean kobratu eta jendeak ez du hilabetea pasatzeko

Langileek errifa bat egin zuten eta baturiko dirua beharizana zuten langileen artean banatu zuten

dirurik", azaldu du komiteko kide batek. Hori horrela, errifa bat egin eta baturiko dirua beharizana zuten zortzi langileren artean banatu zuten. "Lagundu diguten herri-tar guztiekin oso eskertuta gaude", gehitu du komiteko kideak.



Berrizko Mega enpresako langileak.

Elorrioko Udalak bost udaltzain postu bete behar ditu eta hori lan eskaintza publiko baten bitartez egingo du

Gaur egun hutsik dauden bost lanpostuak oposizio-lehiaketa baten bitartez bete gura ditu udalak, bitartekotasun tasa murrizteko



Interesdunek otsailaren 2ra arte aurkeztu ditzakete eskabideak.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak bost udaltzain postu bete behar zituela iragarri zuen urte amaieran, eta hori lan eskaintza publiko baten bitartez egingo zuela, hain zuzen ere. Deialdia eta oinarriak abenduaren 27an argitaratu ziren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta interesdunek urtarrilaren 1etik izango dute aukera euren eskabidea aurkezteko. Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 2an amaituko da.

Udaletik azaldu dutenez, udaltzainen bost lanpostuak, gaur egun hutsik daudenak, oposizio-lehiaketa baten bitartez beteko dira. Horrela, udalak bitartekotasun tasa murrizten eta enplegua egonkortzen jarraitu gura du.

Elorriion martxan daude whatsapp eta telegram kanalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak whatsapp eta telegram informazio kanalak martxan ipini ditu herritarrei informazioa helarazteko. Bertatik azaldu dutenez, zerbitzu hauen helburua herritarrak modu erraz eta zuzenean informatuta izatea da. "Beste pauso bat eman dugu elorriarrek udal jardueraren egunerokotasunean gertatzen den guztiaren berri izateko", azaldu du Maria Herrero alkateordeak.

Whatsapp zerbitzura batzeko, 747 448 832 telefonoa kontaktuen zerrendan gorde eta 'Alta' testua bidali beharko da bertara. Telegram bidez informazioa jasotzeko, oster, Elorrioko Udalaren kanala bilatu eta bertara batu beharko da.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA

Matrikulazio epea zabalik:
Urtarrilaren 17tik 28ra
bitarte
Ate irekiak:
Urtarrilaren 15ean,
goizean zehar

Eman izena kurutziagaikastola.eus
atarian edo 946 200 822 telefono
zenbakira deituta.

ESKaintza:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Aldundiak atzera bota ditu Mañariko Udalak ibilgailuen abiadura gutxitzeko orain arte egindako proposamenak

Proposamenak atzera bota bai, baina oraingoz horien ordezeko alternatibarik ez dietela eskaini kexatu dira udaletik

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Herrigunetik igarotzen diren ibilgailuen gehiegizko abiadura kezka iturri izan da Mañarian azken urteetan. Udal ordezkarien esanetan, herriko zebrabideetan susto bat baino gehiago gertatu izan da. Horregaitik, egoera horri irtenbidea bilatu guran dabilta. Aurtengo aurrekontuetan 10.000 euroko diru atal bat ipini dute horretarako, eta iaz batzar bat baino gehiago egin zuten Aldundiagaz gaia aztertzeke.

Oraingoz, Aldundiagaz egindako batzarrek ez dute fruiturik eman. Aldundiak atzera bota ditu udaletik egindako proposamenak. Herriguneko



BI-623 errepideak Mañariko herrigune osoa zeharkatzen du.

Proposamenak atzera bota eta ez dietela alternatibarik eskaini kexatu dira udaletik

errepide zati bat goratzea zen proposamenetarikoa bat. Udaleko proposamenak atzera bota bai, baina horren ordezeko alternatibarik eskaini kexatu da Ainara Otxotorena alkatea. Orain, Aldundiaren erantzuna

aztertzen dabilta udalean, aurrera begirako pausoak zeintzuk izan daitezkeen erabakitzeke.

Izurtzakoa, gurago ez

Izurtzan ere urte askoan egon dira ibilgailuen abiadura gutxitzeko neurri eske. Azkenean, Aldundiak hainbat semaforo ipini du. Kontua da semaforoak gorri

Orain, Aldundiaren erantzuna aztertzen dabilta, aurrera begirako pausoak zehazteko

ipintzen direla sarritan, nahiz eta zebrabideetan inor egon ez. Udaletik ez dira irtenbide horren aldekoak. "Bidea inork gurutzatu behar ez badu, semaforoa gorri ipintzea ez da irtenbide egokia, gure ustez. Kontua ez da hori, ibilgailuen abiadura mantsotuko duten neurriak hartzea baino", adierazi du Otxotorenak.

Bizikletak konpontzeko gune berriko makina ipini dute Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Bizkaiko hainbat herritan, bizikletak konpontzeko guneak ipintzen dabil Aldundia eta Izurtza da herrietariko bat. Aparkalekuaren ondoan kokatuko dute gunea. Makina bera ipini dute dagoeneko, baina oraingoz ez dago martxan. Aktibatzen dutenean, txirrindulariek euren bizikletetan konponketa txikiak eta mantentze-lanak egin ahal izateko beharrezko tresneria aurkituko dute azpiegitura berrian; besteak beste, gurpilak puztu edo aldatu ahal izango dituzte, bizikletako torlojuak estutu, balaztak doitu edo gurpiletako zulaketak konpondu.



Bertso eskolan eta helduen hezkuntzan izena emateko aukera dago Otxandioan

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Bertso Eskola berriro martxan egongo da urtarritetik aurrera, eta bertan parte hartzeko izen-ematea hasi dute. Astelehenero emango dituzte klaseak. Interesa dutenak Otxandioko udaletxean apuntatu daitezke.

Helduentzako Hezkuntza 14 herritarrek osaturiko talde bat dabil egunero formakuntza jasotzen

Bestalde, irailean Helduentzako Hezkuntza (HHE edo EPA) ipini zen martxan Otxandion, eta, harrezkero, 14 herritarrek osaturiko talde bat dabil egunero oinarrizko formakuntza hobetzen eta autonomia lantzen. Hile honetan, HHEko klaseetan izena emateko aukera zabalik egongo da berriro ere. Udaletxean eskuratu daiteke horri buruzko informazio gehiago.

Hilabeteren barruan lur-jausi bi gertatu dira Trabakuko errepidean

Guztira, 2.400 metro kubiko material jausi da errepidera

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Azken asteetako euriteak bereziki kaltegarriak izan dira Trabakutik igarotzen den N-633 errepidean. Hilabeteren barruan lur-jausi bi gertatu dira bertan. Joan zen domeka iluntzean gertatu zen bigarrena, lehenengoa gertatu zen inguruan.

Astelehenean, Aldundiko langileak errepidera jausitako 400

metro kubiko lokatz erretiratzen aritu ziren eta, ondorioz, errepidea itxita egon zen trafikorako. Hurrengo egunean, martitzenean, errei bat zabaldu zuten trafikorako. Hain zuzen, abenduko lehenengo lur-jausitik ipinita zegoen bypass-a luzatu egin zutela adierazi zuen Imanol Pradales Azpiegituratarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak. Bypass-a semaforo batek kontrolatzen du.

Lehenengo lur-jausia abenduaren 10ean gertatu zen. Orduan, 2.000 metro kubikoko lohia jausi zen errepidera. Kasu honetan, kalteak konpontzeko lanek martxoaren amaierara arte iraungo dutela iragarri zuten Aldunditik.

Lur-jausi biak bata bestetik gertu daudenez, abenduko bypass-a luzatu egin dute



Hondeagailuak errepideko lohia erretiratzen, astelehenean.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

Iurretako Udalak COVID ziurtagiria eskatu ez dezan baturiko 125 sinadura aurkeztu dituzte udaletxean

COVID ziurtagiria "erabat diskriminatzailea" dela nabarmendu dute sinatzaileek, "oinarrizko eskubideen aurkakoa"



Udal langileak eta herriko ostalariak "polizia lanetan" ipintzen dituztela salatu dute udaletxean aurkezturiko idatzian.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Zenbait herritarren ekimenez, Iurretan sinadura bilketa egin dute Iurretako Udalak COVID ziurtagiria eskatzeari utz diezaion eskatzeko. Bestalde, udalak Eusko Jaurlaritzari "neurri horren erabateko desegokitasuna" adieraztea eskatu dute. Eskariok batzen dituen idatzia eta

baturiko 125 iurretarren sinadurak udaletxean aurkeztu dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren aginduz zenbait leku eta ekitalditan udala COVID ziurtagiria eskatzen hasita dagoela kritikatzeko duen idatzia sinatu duten iurretarren euren "haserrea" eta "egonezina" helarazi

Udalak Eusko Jaurlaritzari "neurri horren erabateko desegokitasuna" adieraztea eskatu dute

gura dizkiete udalari eta Eusko Jaurlaritzari. Era berean, neurri bi proposatu dizkiote udalari "espazio publiko itxien segurtasuna bermatzeko": "CO2 neurgailuak ipini daitezke eta aireztapen sistema egokia izan dezaten inbertitu", idatzian argitu dutenez. "Osasun neurriak hartu behar ditugu pandemiari aurre egiteko, eta, horretarako, ezinbestekoa da osasun zerbitzuak indartzea: lehen mailako arreta, aztarnariak..." gaineratu dute.

Diskriminatzailea

COVID ziurtagiria "guztiz diskriminatzailea" dela nabarmendu dute sinatzaileek idatzian, "oinarrizko eskubideen aurkakoa". Gaineratu dutenez, "zientzialarien esanetan ez ditu ez kutsatzeak murriztuko ezta pandemia geldiaraziko ere". Harturiko neurri horrek udal langileak eta herriko ostalariak "polizia lanetan" ipintzen dituela salatu dute, "inongo berme legalik barik". Herritarren artean "banaketa" eta "haustura" eragiten dituela ere azaldu dute.

Durungaldeko Berbalagunek Hiketalagun ekimena hasi du Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Eskualdeko hitanoaren erabilera sustatzeko asmoz, Durungaldeko Berbalagunek Hiketalagun ekimena ipini du martxan urtarilean Iurretan. Lau saioko ikastaroa prestatu dute, ekimenaren oinarrian dagoen *Poltsikorako hitanoa* liburuxka ardatz hartuta; lagungarria izango da hitanoz berba egiten hasteko. Saiok Lanbide Heziketako zentroan izango dira urtarrilaren 19an eta 26an, eta otsailaren 2an eta 9an.

Iaz jaio zen ekimena, eta orduan argitaratu zuten *Poltsikorako hitanoa* liburuxka hainbat iurretarrerezag batera. 2020an, aste gutxitan, 40 lagunek baino gehiagok eman zuten izena hitanoz berba egiten ikasteko eta praktikatzeko. Baina osasun egoerak behartuta atzeratu egin zuten. Ikastaroa doan da eta interesa duen edonork parte hartu dezake. Urtarrilaren 17ra arte eman daiteke izena, 639 400 786 telefonora deituta. Ondoren, Mintzapraktika taldeak antolatuko dituzte.

Zelaieta auzoko Solokoa kaleko espaloiak egokitzen hasi dira

Abadiñoako Udalak 45.763,53 euroko aurrekontua du lanetarako; espaloiairen tarte bat egokituko dute lan hauekin; Abadiñoako Zelaieta auzoan dago Solokoa kalea

ABADIÑO • A.M.

Zelaieta auzoko Solokoa kaleko espaloiak egokitzen hasi dira. Espaloia zabaltzeaz gainera, arkitektura oztopoak kenduko dituztela iragarri du Abadiñoako Udalak. Lanek 45.000 euro inguruko aurrekontua dute. Lanak hilabete eta erdian amaitzea aurreikusten du udalak.

Internet bidezko ginkana

Bestalde, Abadiñoako Udalak AbadiñON Gazte Lehia ekimena ipini du martxan. 12tik 16 urtera arteko gazteentzako ekimena izango da eta urtarrilaren 21etik otsailaren 15era bitartean egingo dute. Abadiñoako Udalak 600 euro banatuko ditu saritan. "Herriko gazteen artean euskararen erabilera sustatze-

ko eta Interneten eta sare sozialetan erakargarri egiteko helburuagaz ipini dugu martxan ekimena", azaldu dute udal iturriek. Asteon zabaltzeko izena emateko epea. Horretarako, on.gaztelehia@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da, edo 688 763 074 telefono zenbakira deitu. Otsailaren 18an jakinaraziko dira irabazleak.



Abadiñoako Solokoa kaleko obrak.



Algako eta Inervoleko langileek eginiko mobilizazioa.

Alga eta Inervoleko greba bertan behera utzi dute

Abenduaren 9an hasi zuten greba amaitutzat eman arren, ELA sindikatuak adierazi du egoera ez dela "konpondu"

ZALDIBAR • A.M.

Inervol eta Industrial Alga lan-tegietako beharginek greba mugagabea hasi zuten abenduaren 9an; besteak beste, zuzendaritzak azaroko eta abenduko nominak ez zizkietelako ordaindu; nominak jaso eta gero, abenduaren 15ean bertan behera utzi zuten greba mugagabe hori. ELA sindi-

katutik, "egoera ez dela konpondu" adierazi zuten ohar baten bitartez.

Inervolek Zaldibarren du lan-tegia, eta Algak Abadiñon eta Zaldibarren, bana. Enpresa biek 180 langile dituzte guztira, eta LABek, ELAk, CCOOk eta independenteek osatzen dute ordezkaritza sindikala.

Astelehenetik martxan da antígeno eta PCR probak egiteko espazioa Durangoko Landako Gunean

Durangaldeko, Ondarroako eta Markinako bizilagunek Durangora joanda egin ahal izango dituzte probak



Landako Gunean egokitu dute antígeno eta PCR probak egiteko espazioa, hirugarren modulan.

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Astelehen arratsaldetik martxan da antígeno eta PCR probak egiteko espazioa Landako Gunean. Osakidetzak martxan ipinitako planaren barruan, anbulatorioetako lan karga arintzea da helburua. Durangaldeko bizilagunek espazio honetan probak egiteko aukera izango dute. Durangaldeko, Ondarroako eta Markinako bizilagunak bertara deituko dituzte.

Bestalde, Osakidetzak positiboak detektatzeko protokoloa aldatu zuen astelehenean. Gotzone Sagardui sailburuak azaldu zuenez, botikako testetan positibo ematen dutenei Osakidetzak ez die egingo kasua berresteko probarik. Orain arte, etxean egingako proban positibo ematen zutenek webguneko formulario bat beteta eman behar zuten horren berri, kasua berresteko Osakidetzak test bat egiteko. Baina orain lehenbailehen bakartzea da irizpidea. Osasun sistemak sintomak "okerrera" egiten badute edo gai-

xotasun baimena behar dutenak baino ez ditu artatuko.

Ikasleak eskolara bueltatu dira asteon, eta kasu horietan ere aldatu egin dute protokoloa. Ikasgelaren batean kasuren bat bada go ere, gela hori ez konfinatzea da irizpidea. Kasu gehiago badaude, Osakidetzako adituek aztertuko dute egoera, eta orduan emango dute irizpide gehiago.

Osakidetzak martxan ipinitako planagaz anbulatorioetako lan karga arindu gura dute

Txertaketa Durangon

Astelehen arratsaldetik, Durangoko albulatorio zaharrean txertoak ematen hasi dira. Durangoko Landako Guneako txertaketa puntua itxi zutenetik, Durangaldeko hainbat herritar Galdakaora edo Gernikara joan behar izan da txertoa hartzera. Astelehenetik, Durangaldeko, Ondarroako eta Markinako bizilagunek Durangon txertatzeko aukera izango dute. Gune horretan, oraingoz, helduak baino ez dituzte txertatzen, arratsaldez.

“Pentsioak KPI orokorraren arabera igotzea aldarrikatuko dugu zapatuko manifestazioan”

Pentsiodunen mugimenduak lau urteko bidea egin du. Durangaldeko kideak Bilboko manifestaziora joango dira zapatuan



Ruben Castillo, Loli Obieta eta Matias Oregi, Durangoko pentsiodunak.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ruben Castillo, Loli Obieta eta Matias Oregi Durangoko pentsiodunen plataformako kideak dira. Eskualdeko gainerako kideekin batera

aldarrikapenekin jarraituko dute aurrerantzean ere.

Lau urteotan, zeintzuk izan dira pentsiodunen mugimenduaren lorpenak?

Loli Obieta: Hasteko, pentsioak urtean %0,25 igotzeko neurria ezabatzea lortu genuen. Hori izan zen guztiaren hasiera.

Matias Oregi: Bai, pentsioak Kontsu-

morako Prezioen Indizearen arabera igo zitezen lortu genuen. Baina orain ikusi duguna da igoera hori ohiko KPIlagaz egin barik, asmatu berri duten indize bategaz aplikatuko digutela. Hau da, ez dugu behar besteko igoera izango eta horren alde borrokatzea dagokigu. Horixe izango da zapatuko manifestazio-ko aldarrikapen nagusia. Horrez gainera, gizon-emakumeen arteko pentsio arrakalari amaiera ematea, pobrezia amaitzea edo gutxieneko 1.080 euroko pentsioak eskatuko ditugu. Beste lorpen bat gobernuak gutxieneko soldadari eta diru sarrikeri buruz eztabaidatzea izan da. Hortxe dago eztabaida.

L.O.: Aurrera begira ere lorpen horiek ditugu buruan. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, gutxieneko soldata 1.200 euroan kokatzea, pentsioen erreformak dituen neurri atzerakoiak ezabatzea eta lan erreforma osorik indargabetzea, adibidez.

Ruben Castillo: Horrez gainera, adindunoi eragiten diguten beste hainbat arazo batu ditugu gure alda-

rrikapenetara. Bankuen Internet bidezko zerbitzuak, argindarraren prezioaren igoera eta halakoak. Horiek ez daude bere horretan pentsioei lotuta. Gazteei ez die eragingo, baina guri modu zuzenean eragiten digute.

Gazteria aipatu duzue. Zelako inplikazioa du gazteriak pentsioen aldarrikapenetan?

L.O.: Laguntza eskatzen dugun aldiro hortxe daude. Etortzen dira.

M.O.: Nik plano bi ikusten ditut. Batetik, manifestazioetara etortzen dira, parte hartzen dute. Baina, bestetik, iruditzen zaidana da gazteriak urruti ikusten dituela pentsioak.

R.C.: Eta egoera aldatzen ez bada, arazo hau haiena ere izango da etorkizunean. Diru faltan daudenean, orduan irtengo dute kalera protestan.

Zelakoa da Durangaldeko plataformen egoera?

M.O.: Gabonak arte, Bizkaian, 2.400-2.500 pentsiodun mobilizatu izan gara astelehenero-astelehenero. Durangaldean 250 bat aritzen gara. Badugu erresistentzia bat antolatuta. Jendeak erantzuten du.

Zapatuan Bilbon mobilizatzeko zarete.

M.O.: Durangaldeko kideak Carlton hotelaren aurrean batuko gara, 11:45ean. Gero, manifestazioagaz bat egingo dugu, 12:00etan. Kale Nagusiaren 50. ataritik hasiko gara gu.

Elkarretaratzeak Durangaldean, Tuterako erailketa matxista salatzen

Astelehen goizean, 38 urteko emakume baten gorpua aurkitu zuten Tuteran (Nafarroa)



Asteon Zaldibarren egindako elkarretaratzeko argazkia.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Astelehen goizean, foruzainek eta suhiltzaileek 38 urteko emakume baten gorpua aurkitu zuten Tuteran (Nafarroa). Hasieratik, emakumearen senarra izan zen hilketaren susmagarri nagusia, eta Boiredon (Frantzia) atzeraman zuten, martitzen gauerdian. Ikerketaren hipotesi nagusia da senarrak hil zuela 38 urteko emakumea.

Erailketa matxista hori salatzen, elkarretaratzeak egin dituzte asteon Euskal Herriko hainbat herritan. Baita Durangaldean ere: Berrizen eta Zaldibarren, besteak beste.

2022an Euskal Herrian indarkeria matxistaren eraginez hil duten lehenengo emakumea da 38 urteko tuterarra.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonandia
EAJ



PERIaren itzalak

2019ko hauteskunde-kanpaina, askotan entzun genuen BEPBrako parke berde bati buruz hitz egiten, eraikinik gabe, aisialdirako gune handi batekin, eta frontoia barne. Oraindik ere badugu irudia buruan, eta, horretarako, hemeroteka ondo dator, EAJtik behin eta berri esan genuelako negoziatu beharra zegoela eraikinen altuera jaisteko eta proiektua egungo beharretara egokitzeko.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak bira garrantzitsua eman dute. Eraikinik gabeko birika berde bat defendatzen, altuera jaistera igaro dira, Durangoko EAJn planteatzen gundenaren ildotik.

Horretarako, azkenean, negoziatzeko bidean sartu da. Horregatik poztzen gara, aurrerapausoa da. Dirudienez, aurreakordioa lortu du eta parte-hartze prozesu bat dago, baina zinegotziok ez dugu horri buruzko inolako informaziorik jaso. Agian lortutako aurreakordioa ez da hain ona?

Erakusketara joan gara, informazio horren bila. Eta, egia esan, bertan ere ez dugu informazio argirik aurkitu. Zein da Durangok aurreakordio horrekin bere gain hartzen duen benetako kostua? Zein da Udalak Eusko Jaurlaritzari lagatzen dizkion BOEen, lursailen eta eraikinen kopuru zehatza eta zein da horien kuantifikazio ekonomikoa? Zenbat jaisten dira altuerak eta zenbat handitzen da berdegunea trukean? Zergatik egiten zaio uko BEPBan udalaz gaindiko proiektu estrategiko bat izateko aukerari? Zer gertatzen da durangarren zati handi batek aurreakordioaren baldintzak baztertzen baditu edo beste aukera bat bermatzen badu?

Oraingoz dena da zalantza eta itzala.

Durangaldea asteen

Gerediaga elkartearen Astola aldizkariak hamabost urte bete ditu

Durangaldea I Aldizkariaren ale berri eta berezi honetarako, Gerediagak Durangaldeko historian eta ondarean sakontzen duten zortzi erreportaje batu ditu. Horietako zenbait erreportaje, Durangaldeko basoei, Elorrioko ondare industrialari eta Zaldibarko ospitaleko kaperari buruzkoak dira. Aldizkaria Durangaldeko hainbat tokitan salduko da.

Durangoko Udala saritu dute giltzurrunetako gaixotasuna dutenei laguntzeagaitik

Durango I ALCER Bizkaia elkarteak sari bat eman dio Durango Udalarari urteetan giltzurrunetako gaixotasuna duten pertsonen kiko agertu duen konpromisoagaitik. Elkarrekin Bilbon egindako ekitaldi batean saritu du udala. ALCER Bizkaia elkarrekin 1977tik dabil giltzurrunetako gaixotasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta laguntza-sareak indartzen.

Zornotzako Udalak hitanoa lantzeko berba-taldea sortzeari ekin dio

Zornotzan I Zornotzako Udaleko euskara zerbitzuak hitanoa lantzeko berba-taldea sortu gura du. Otsailetik ekainera bitartean saioak egin gura dituzte, zortzi-hamar lagunek taldeetan antolatuta. Taldeok aste birik behin elkartzea da asmoa, eta saio bakoitza atal bitan banatuko dute. Hitanoari loturiko aditz formak eta berezitasunak azalduko dituzte, besteak beste.



Osakidetzaren "gainkarga eta utzikeria" salatu dituzte anbulatorioen aurrean

Durangaldea I Eguenean kontzentrazioak egin zituzten eskualdeko hainbat osasun etxetan lehen mailako arretaren egoera salatzen. Beharginek salatu dute lanez "gainezka" daudela eta "arazo larriak" dituztela pazienteak artatzeko. Elkarretaratzeak Satse, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta egin zituzten eta zenbait eragile batu ziren eurretara: pentsiodunen mugimendua eta EH Bildu, besteak beste. Azken honek adierazi du "ezin sinistukoa" dela egoera. "Pandemiagaz osasun egoera publikoa indartu barik, oraindino gehiago ahuldu" dela salatu dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

URTARRILAK 12-20
Pippiren ilustrazio tailerra
ONDITZ MENDIZABAL
Maiztegi Herri Eskolako LH3-LH6ko ikasleentzat

URTARRILAK 18
18:30 "Astrid, Pippi, Karin y muchas más" berbaldia • JOSUNE MUÑOZ (Skolastika Literatur Zerbitzuak), CRISTINA PEREGRINA (Editorial Kókinos)
Sarrera gonbidapenarekin

Astrid Lindgren

LAN ESKAINTZA

Eskatzen duguna:

- Euskalduna izatea
- Gidabaimena
- Ostalaritza sektorea ezagutzea
- Pertsona dinamikoa

Eskaintzen duguna:

- Kontratu mugagabea
- Prestakuntza
- Soldata interesgarria
- Egonkortasuna

Interesdunek mezua bidali helbide honetara: likorbiltegia@euskitze.com



MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko tresnek duten zenbakia kontuan hartuta.



= 4



= 8



= 3



= 1



+



-



=



-



x



=



/




x



=

OSATU MARRAZKIA

Margotu laukiak lore honen beste erdia osatzeko.
Ispilu baten moduan, bere erreflexua margotu behar duzu.



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zazpi zati hauetatik sei ez datoz bat beheko irudiagaz. Zeintzuk?



DIFERENTZIAK


Topatu itzazu zazpi diferentziak.



BIKOTEAK EGIN



LABIRINTOA



DIFERENTZIAK


Topatu 7 diferentziak



SEKUENTZIARI JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.
Zer da?

7 ↑ 7 → 1 ↑ 1 ↖ 1 ← 1 ↗ 1 → 1 ↑ 3 → 2 ↓
1 ↘ 1 ↓ 7 → 7 ↓ 2 ← 2 ↑ 2 ← 2 ↑ 2 ← 2 ↓
3 ↘ 1 ↘ 1 ↖ 1 ↘ 1 ↖ 1 ↘ 1 ↖ 1 ↘ 1 ↖
1 ↖ 3 ↗ 2 ↑ 2 ← 2 ↓ 2 ← 2 ↓ 2 ←




BIKOTEAK SORTU

Beheko bizikleta hauek guztiek euren bikotekidea dute.
Bazara gai denak topatzeko?



Labirinto honetan egin bidea sekuentziari jarraituta.







'Greenpiss'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Urtarrilaren 14an

Yllanak ekologiari buruzko satira taularatuko du Arriola antzokian

Yllana antzerki konpainiak ekologiari, gure planetaren etorkizunari eta gure espeziearen iraupenari buruzko satira dibertigarria aurkeztuko du, gaur, Arriola antzokian: *Greenpiss*.

Berotze efektua, plastikoen gehiegizko erabilera, neurrigabeko kontsumismoa, milaka animalia-espezieren galera eta gure

espeziearen desagertzearen arriskua dira obraren ardatz, eta pertsonaia ugariren papera egingo duten lau aktore igoko dira taula gainera: Fidel Fernández, Luis Cao, Juanfran Dorado eta Jony Elías. Jatorrizko musika Marc Álvarezena da eta Willy Monroe izan dute magia aholkulari. Antzezlanaren 20:00etan hasiko da.

'Toc, una terapia de choque'

ANTZERKIA **ABADIÑO** :: Urtarrilaren 15ean

Shock-terapia berezia, La Locandiera Teatroren eskutik

Laurent Baffie umorista frantsesaren komedia ezagunaren moldaketa aurkeztuko du La Locandiera teatro konpainiak, zapatuan, Abadiñoko Errota kultur etxean, 20:00etan: *Toc, una terapia de choque*.

Nortasunaren nahasmendu obsesibo-konpulsiboa duen gaixo

talde batek psikologoaren itxarongelan kointzidituko du. Osabide baten bila joan dira denak, baina psikologoa berandu dator, bere hegazkinak izan duen arazo bategatik. Denek elkarregaz itxaron beharko dute eta bakoitzak bere inpultso, obsesio, mania eta erri-tualei eutsi beharko die.



Urtarrilaren 14an

ZORNOTZA antzerkia
'Lubaki Lainotsua' (Atx konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Urtarrilaren 15ean

DURANGO antzerkia
'Lehendakari Gaia' (Txalo Produzioak konpainia), 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Urtarrilaren 17an

ABADIÑO irakurzaletasuna
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gaztelaniaz. Peru Magdalenak dinamizatuta.

Urtarrilaren 18an

IURRETA berbalidia
'Astrid, Pipi, Karin y muchos mas', 18:30ean, bibliotekan. Hizlariak: Josune Muñoz (Skolastika) + Crsitina Pregrina (Editorial Kókinos).

Urtarrilaren 19an

IURRETA irakurketa kluba
'Pipi Galtzaluze' (Astrid Lindgren), 17:00etan eta 18:00etan, herri bibliotekan. LH3-LH6 bitarteko neska-mutilei zuzenduta. Peru Magdalenak gidatutako Paperezko Hegoak haurren irakurketa klubaren barruan.

Urtarrilaren 21ean

IURRETA tailerra
'Piratartistak' arte adierazpen tailerrak. LH1-LH6 eta DBHko ikasleei zuzenduta. Hiru saio egingo dira, 15:15etik 19:45era. Izena aldez aurretik eman behar da.

Urtarrilaren 23an

DURANGO antzerkia
'Ganbara doinuak' (Markeliñe konpainia), 18:00etan, San Agustin kultur gunean.

ELORRIO antzerkia
'Pinocchio: erdarniozko istorioa' (Canti Vagant konpainia), 17:00etan, Arriola antzokian.

Urtarrilaren 29ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
'Zabalik' (Kandela Sormen Gunea), Zelaieta Zentroan. Zornotzako komertzioen historia erakusten duten argazkiak.

Otsailaren 20ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Mari Puri Herrero gaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak' (Mari Puri Herrero), Arte eta Historia Museoa. Bisita gidatua urtarrilaren 26an, 18:00etan (euskaraz). Izena eman behar da: 94 603 00 20 telefonoan edo museo@durango.eus posta elektronikoa.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **Scream**

barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 17:00/19:45/22:00
domeka 16: 17:00/19:45
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 18:00/20:15
eguzartena 19: 18:00/20:15

• **Una librería en París**

barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 19:30/22:00
domeka 16: 19:30
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 18:00/20:15
eguzartena 19: 18:00/20:15

• **El amor en su lugar**

barikua 14: 19:30/22:00
zapatua 15: 19:30/22:00
domeka 16: 19:30
astelehena 17: 18:00/20:15
martitzena 18: 18:00/20:15
eguzartena 19: 18:00/20:15

• **Ilargirantz**

zapatua 15: 17:30
domeka 16: 17:30

• **¡Canta 2!**

zapatua 15: 17:00
domeka 16: 17:00

• **El triunfo**

eguzartena 20: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Cerca de tí**

zapatua 15: 20:00
domeka 16: 20:00
astelehena 17: 20:00
• **Trash**
domeka 16: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Delicioso**

zapatua 15: 20:00
domeka 16: 20:00
astelehena 17: 20:15
• **¡Canta 2!**

zapatua 15: 17:00
domeka 16: 17:00

• **Alegría**


martitzena 18: 20:15





merkataritza
gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Durangoko San Agustin kulturguneak 'Lehendakari gaia' komediagaz hasiko du udaberriko programazioa, zapatuan

Urtarrilaren 15ean izango da Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituen komedia; 19:00etan hasiko da 'Lehendakari gaia' antzezlan



Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza dira 'Lehendakari gaia' antzezlanoen protagonistak.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

San Agustin kulturguneak asteburuan ekingo dio urteko programazioari. Hain zuzen ere, komedia batez emango diote hasiera. Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituen *Lehendakari gaia* antzezlana egongo da ikusgai zapatuan, hilak 15; 19:00etan hasiko da. Galartza oraintsu hautatu dute lehendakari, baina kargu-hartze ekitaldia prestatzen ari dela arazo larri bat suertatzen zaio: saihestu ezin duen tik arraro bat. Arazoa gainditu eta ekitaldia ganoraz prestatu ahal izateko, Gurrutxaga psikiatraren zerbitzuak kontratatuko ditu, eta bien artean hartu-eman tirabiratsu baina dibertigarri bat jaioko da. Sarrerak 12 euroan erosi daitezke.

Komedia ez ezik, bestelako obrak ere ikusi ahalko dira San Agustin kulturgunean hemen-dik eta maiatzera bitartean. Urtarrilaren 23an, Markeliñe antzerki talde bateranoak *Ganbara doinuak* emanaldia eskainiko du. Familia eta ondare kulturala zaintzeari buruzko gogoeta dakar antzezlana honek. Urtarrilaren 29an, Banarte antzerki talde abadiñarrak *jEse no!* obra

eskainiko du. Pertsonen arteko hartu-emanak dira lan honen ardatza; komedia formatua du eta Alexander Patellière eta Matthieu Delaporte frantziarren *Le Prénom* lanean oinarrituriko testua du. Urtarrila A.K.A bakarrizketak itxiko du. Lluís Febrer protagonista duen lanak nerabezaroa eta honen garrantzia ditu ardatz.

'Gure eguenak' egitasmoa

Asteburuetako eskaintza osatzeko asmoz, kulturguneak egitasmo berri bat aurkeztu du: *Gure eguenak*. Etxeko artista batek emango die hasiera emanaldi berezi horiei: Ander Erzilla musikariak. Erzillak *Sustraiak adarretan* diskoa aurkeztuko du hilaren 27an; ikuskizunak musika inprobisatua, poesia eta bertsoak uztartzen ditu, besteak beste. *Gure eguenak* egitasmoan, Antton Telleriak, Irati Bilbao durangarrak, Doos konpainiak eta Axut antzerki konpainiak ere parte hartuko dute.

Urtero lez, San Agustinek bazkidetza kanpaina martxan ipini du. Bazkideek %25eko beherapena izango dute San Agustinek antolatutako emanaldi guztietan.

Berrizko Kultur Etxeak 20 kultur ekitaldi baino gehiago hartuko ditu urtariletik maiatzera bitartean

2022ko kultur programazioari gaur, maiatzak 14, emango diote hasiera Dana Moya eta Miren Agur Meaberen ikuskizunagaz. Azken ekitaldia maiatzaren 21ean izango da



Dana Moya eta Miren Agur Meabe.

IKUSKIZUNAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urteak dira Berrizeko kulturaren aldeko apustua egiteari ekin ziola, eta harrezkero Berrizko Kultur Etxeak eskaintzen duen kultur programazioa eskualdeko erreferenteetarikoa bat da. Aurten ere, ohiturari jarraituz, urte hasieran lehenengo hileetako kultur programazioaren berri eman dute, urtariletik maiatzera bitartekoaren berri hain zuzen ere.

Berrizko Kultur Etxea musika kontzertuz, dantzaz eta antzerki familiarrez beteko da

Kultur programazioak hogeik ekitaldi baino gehiago hartuko ditu eta herriko Antonio Deuna jaiekin batera emango diote hasiera. Urtarrilaren 14tik maiatzaren 21era bitartean, Berrizko Kultur Etxea musika kontzertuz,

dantzaz eta antzerki familiarrez beteko da.

Niña Coyote eta Chico Tornado taldearen musikaz gozatzeko aukera egongo da martxoan

Dana Moyaren eta Miren Agur Meaberen musika eta poesia errezitaldiagaz emango diote hasiera kultur programazioari, gaur. Bestalde, La Dramática Errante konpainiak *Altsasu* antzezlana taularatuko du urtarrilaren 16an.

Horrez gainera, Cortocircuitos abeslariaren 'Mr. Kilombo' proiektuaz eta Niña Coyote eta Chico Tornado taldearen musikaz gozatzeko aukera egongo da martxoan. Baita Zurrunka Teatro zein Markeliñe antzerki taldeen ikuskizunak ere, besteak beste.

Kultur ekitaldi hauetarako sarrerak eskuratu gura dituztenek aurrez aurre zein Internetez hartzeko aukera izango dute.



Javier Barandiaran, Maren Basterretxea eta Miriam K. Martxante dira aktoreak.

Belaunaldi arteko talka erakusten duen 'Lubaki lainotsua', Zornotzan

ATX Teatroren emanaldia barikuan izango da, Zornotza Aretoan; 20:00etan hasiko da

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Soldadu zaharra eta bere erreleboa trintxeraren bueltan batuko dira. Izenik bako gerra batean, zehaztu bako garai eta kokapen batean. Javier Barandiaran aktorea soldadu beteranoa da, ordezeko txandaren zain dagoen soldadua. Baina erreleboa ez da ailegatzen; soldadu beteranoak naufragoa dirudi, egun batean Maren Basterretxea helden den arte. "Soldadu gaztearen ailegaerak hankaz gora utziko du beteranoaren mundua", azaldu dute ATX Teatroren iturriek.

"Proiektu honen helburua belaunaldien arteko talkaren garrantziaz jabetzea da"

Ion Chavez teknikari berriztarrak diseinatu du antzezlaneko argiztapena

"Proiektu honen helburua belaunaldien arteko talkaren garrantziaz jabetzea da. Kriterio diferentzia honi eskerrak, munduak aurrera egiten du, lehengo jakinduria horren kontzeptu zaharkituak baztertuz eta belaunaldi berrien sakrilegioak onartuz", diote. Miriam K. Martxantek osatuko du aktoreen taldea. ATX Teatro konpainiak urrian estreinatu zuen antzezlan, eta ordutik hona dozenaka emanaldi egin dituzte. Ion Chavez berriztarrak diseinatu du argiztapena.

Francisco 'Pantxo' Cruz musikari elorriarra hil da

Musikari argentinarra 69 urte gaz zendu da; Argentinan sortu bazen ere, Elorrion bizi izan da urte askoan

MUSIKA • M.Z.

Arantza eta Pantxo taldeko Francisco 'Pantxo' Cruz (Argentina, 1952) hil da asteon; musikari argentinarra 69 urte gaz hil da. Eguaztenean bere aldeko elizkizuna egin zen, Elorrion bertan. Argentinan jaiotakoa izan arren, Pantxo Cruz Durangaldean bizi izan da urte askoan. Musikariak ibilbide luzea egin du hamarkadetan. 1997. urtetik, gainera, Arantza Salterainegaz batera kantuan

aritu da herririk herri eta plazarik plaza. Ibilbide musikal horretan, disko bi kaleratu ditu bikoteak; azkena 2017an, *Todo cambia* izenekoa.

1997tik, Pantxo Cruz Arantza Salterainegaz batera kantuan aritu da herririk herri



Pantxo Cruz.

Gai librean

Psikologia positiboaren garai berria

Inoiz kultura hori desagertu bada: 2.0 edo zenbakirik gabeko bertsio finduren bat. Min ematen dit bizitzak batzuetan, handiegia egiten zait mundua, arrotzegia jendea, zikinegia planeta, urduriegi nago gauerdia batzuetan, eta ezin dut bizitzaren edertasuna ikusi teleberrian. Zigortuko nituzke pertsona asko, kondenuatu, niretzat bidezkoak ez diren ekin-tzengatik, garrasi egingo nioke goitik begiratzen nauen orori, eta negar egingo nuke beldurrez bizi den ororekin.

Baina ezin dut hori guztia egin. Emozioak kontrolatu egin behar dira orain, gestionatu, landu. Sistema kapitalista honetan, emozioak kontsumitu egiten dira, maneiatu. Inteligentzia emozionalaz ari dira aditu asko, eta modan jarri dira emozioak lantzeko programak. Aditua izan gabe esango nuke emozioek beregain dutela balorea eta garrantzia,



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Inteligentzia emozionalaz ari dira aditu asko, eta modan jarri dira emozioak lantzeko programak

Ez dut mina lokartu nahi, antistaminikoekin, liburu formako pastillekin edo lema ikasiekin

ez gaitasun intelektual-arrazionalaren tresna bezala, ez arrakasta profesionala lortzeko erreminta bezala. Lagun batek dio emozioak ez direla gestionatu behar, ez direla enpresak. Emozioek emozio izateko balio dute. Eta kito.

Emozioak kontrolatzea emozioak konkistatzea da, eta hori buru arrazionalak agintzen du. Hori da arrazoia ren konkista esparru berria. Min ematen dit bizitzak batzuetan, eta batzuetan ez dut

emozio hori kontrolatu nahi, "pasako dela" edo "ez dela hainbesterako" entzun nahi. Ez dut mina lokartu nahi, antistaminikoekin, liburu formako pastillekin edo lema ikasiekin.

Barnea gordina dela idatzi nuen aurreko batean, eta gordintasuna goraipatu nahiko nuke, bigarrenez. Ez dit mesede handirik egiten emozioak teorizatzeak, kontzeptualizatzeak, emozioei buruz pila bat irakurri eta eztabaida interesgarrietan trebatzeak. Kultuago sentitzeko. Nik esperientziak behar ditut, praktikak, bizipenak. Hor egon nahi dut, ez leihatilaren bestaldean eszena ikusten, ez pantailaren bestaldean eszena kritikatzeko. Nik protagonista izan nahi dut, ez kritikoa, ez esataria, ez idazten duena.

Mina omendu nahi dut, baina tokatzen denean, ez lehenago. "Intentamos y nos empeñamos en aprender del dolor antes de habitarlo" (itzuli gabe doaz kide baten berbak).



Aimar Morgaetxebarria Azkuna

Pilotaria

ZORNOTZA | 2002

“Egun batzuk pasatu eta gero, oraindino ezin nuen sinistu txapel denak irabazi nituela”

Atzelari zornotzarrak jokatu dituen azkenengo hiru txapelketak irabazi ditu eta gaur bertan beste bat eskuratu dezake

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Aimar Morgaetxebarriak amaiera ezin hobe eman zion 2021ari, hiru asteburutan binakako beste hainbeste txapel irabazita: Bizkaiko txapelketan nagusitu zen lehenengo, Diario Vascon gero, eta Zaldibarko Olazarren Gabon zaharretan. Bolada on horrek jarraipena izan dezake gaur bertan, Elgoibarko San Anton txapelketako finala jokatu du-eta Unai Matagaz batera.

A zelako urte amaiera, Aimar!

Itzela izan da. Egun batzuk pasatu eta gero, oraindino ez nuen sinisten txapel denak irabazi nituela. Diario Vasco eta Olazar txapelketarik entzutetsuenetarikoa dira eta eurretan jokatu ahal izatea plazer bat izan bada, zer esanik ez irabazi izana.

Zer itxaropenagaz joan zinen txapelketetara?

Irabaztea gustatzen zaigu denoi, baina, tira, irabazi ala galdu, lan ona egitea eta sentsazio onagaz amaitzea zen helburua. Banekien lan ona eginda zeozer polita egiteko aukerak nituela, baina txapel denak irabaztea... ez nuen inoiz pentsatuko.

Diario Vascoko finala, Hodei Exposito astigaragarraz jokatu zenuena, be-

netan lehiatua izan zen. 22-21 irabazi zenuten Muruaren eta Irazustabarrenaren kontra. Zelan gogoratzen duzu?

Final bat izateko, nahiko trankil joan nintzen bertara. Hasi aurretik, ondo berotu gura nuen, garrantzi handia eman nion horri, batzuetan kostatu egiten zaidalako partiduetan sartzea. Nahiko ondo sartu nintzen partiduan, nahiz eta pilota gozatzea kostatzen zitzaidan. Hodei Exposito izen handiko pilotaria da afizionatuetan, eta ni nagusie-

“Ez dakit profesionaletan debutatuko dudana, baina Baikon daramatzadan urte bi eta erdian amets bat bizitzen nabil”

tan nahiko berria izanda, hasieran kostatu egin zitzaidan berari hau edo bestea esatea, behar zenean agintzea. Aurkariak 12-16 aurreratu zirenean atsedena eskatu nuen, Hodei ez zegoen partiduko unerik onenean eta, ez dakit zelan, baina aginte makila hartzera ausartu

nintzen. Partidua atzean zegoela esan nion. Hodeik gogor astintzen du pilota eta nire kolpea ez da hain mingarria, baina frontisean altuera bilatuta pilota nahiko ondo atzeratzen dut. Estrategia horregaz hasi ginen eta partiduari buelta ematea lortu genuen.

Olazarreko finala, oster, justu kontrakoa izan zen. Ander Muruak eta zuk erraz irabazi zenuten Mataren eta Aizpuruauren aurka: 22-5.

Egia esanda, Mataren eta Aizpuruauren kontrako finala oso gogorra izango zela uste nuen, baina ez zen euren eguna izan. Guk ere ez genuen aparteko ezer egin. Murua bikain aritu zen eta, nire laguntzagaz, berak atera zuen finala aurrera.

Baikogaz aurrekordioa duzu eta eurekin entrenatzen zbiltza. Gustura zaude?

Oso gustura. Eurekin entrenatzen naiz eta prestatzaile fisikoa, teknikoa, medikua, psikologoa... ia behar dudana dena eurak ipintzen didate. Gainera, tratatu zuzena dut pilotari profesionalekin. Ez dakit profesionaletan debutatuko dudana, baina Baikon daramatzadan urte bi eta erdian amets bat bizitzen nabil.

Baikogaz zabilzanetik bizimodua asko aldatu zaizu?

Apur bat bai. Nahiz eta oraindino barruan egon ez, gora heltzeko esperantza duzu beti eta, horretarako, pilota beste gauza batzuen aurretik ipini behar duzu. Entrenamenduak ere beste intentsitate batekoak dira. Laguntza dena izanda ere, zeozer lortu gura baduzu, zeuretik ipini behar duzu.

Urte bi eta erdi hauetan zertan igarri duzu hobekuntzarik handiena?

Orain pilotariagoa naiz eta gauza askotan hobetu dut: fisikoan, alderdi mentalean, laguna zelan animatu ikasten... Gero, ez dakit adinagaitik den edo Baikon nabilelako, baina denbora honetan pertsona lez ere hazi egin naizela sentitzen dut. Niretzat horixe da garrantzitsua, nire hurbileko jendeagaz tratatu ona izatea, eta horixe bilatzen dut.

Baikoren egituraren egonda, sentitu duzu lan ona egiteko presiorik Olazar eta Diario Vasco txapelketetan? Aparteko zeozer erakutsi beharra?

Baietz uste dut, burutik pentsamendu hori kentzen ahalegintzen naizen arren. Enpresa batean bazaude maila ona emango duzula edo eman dezakezula suposatzen da. Gero, sarritan, presiorik handiena kanpoko jendeak esan dezakeenetik sortu daiteke. Batzuetan horixe da txarrena, kanpoko jendearen iritziak zuri afektatzen uztea, eta horixe da saihestu behar dena.

Zure familian ez zara lehenengo pilotaria. Ama palista izan ei zen.

Horrela da, bai. Amak palan jokatzen zuen gazteagotan. Gogoan duk txikitan aitatik amak irabazitako garaikur bat eman zidala. Nik umetan ez nuen apenas txapelketarik irabazten. Amaren garaikur bat ikusi nuen apal batean, aitari eskatu nion eta eman egin zidan. Amak nik baino lehenago batzen zituen garaikurrak, bai.

Zein izan da zure pilotari kutuna, beti animatu izan duzun hori?

Aimar Olaizola zalea naiz, neurri batean aitagaitik. Aita Olaizolaren jarraitzaile handia da eta nire izena beragaitik ipini zidaten. Behin, ni jaio aurretik, Olaizolaren partidua bat ikustera joan zen aita, beragaz egoteko aukera izan zuen eta honakoa esan zion: "Nire semeak zure izena izango du, zugaitik". Gerora, Baikoren barruan, beragaz entrenatzeko aukera izan dut eta oso ondo tratatu nau beti. Gaur egun, Jokin Altuna zalea ere banaiz. Gazteagotan, Altunak buruz burukoa irabaziz gero bere kamiseta erosiko nuela esan nuen etxean, eta halaxe egin nuen gero.



Aimar Morgaetxebarria —eskuman— eta Ander Murua Olazar txapelketako sari banaketan.

Urte berria hasteagaz batera, Zaldai Mendi Taldeak mendi erronka hasi du beste behin ere

3.160 metrogaz, Pirinioetako Bachimala mendia da aurtengo zerrendan sartu duten tontorrik garaiena

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Mendizaletasuna bultzatzeko eta Euskal Herriko mendiak ezagutarazteko helburuz, Iurretako Zaldai Mendi Taldeak urteroko mendi erronkari ekin dio, seigarrenez. Urtero lez, izena eman dutenek Euskal Herriko eta Pirinioetako mendi kopuru bat igo beharko dute erronka betetzeko.

30 mendi daude aukeran; bosna Bizkaian, Gipuzkoan, Araban, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian eta Pirinioetan. Bizkaian, Kurutzeta da mendirik garaiena, 1.214 metrogaz. Urtero lez, Pirinioetan daude gailurrik garaienak: Bachimala (3.160 metro), Mullerez (3.013 metro) eta Vertice de Anayet (2.555

Errazago igotzeko moduko mendi samurragoak ere aurkitu daitezke zerrendan

metro), besteak beste. Dena dela, errazago igotzeko moduko mendi samurragoak ere aurkitu daitezke zerrendan.

18 urtetik gorakoek bost herrialdeko hamar mendi igo beharko dituzte. 10etik 18 urtera artekoek,



Iaz Zaldairen Mendi Astearen barruan egindako sari banaketako irudia.

ostera, nahikoa dute hiru herrialdeko bost mendi igotzea erronka betetzeko. Hamar urtetik beherakoen kasuan ere hiru herrialdeko bost mendi igo behar dira, baina zerrendakoak ez ezik, buzoia duen Euskal Herriko edozein mendi igo dezakete.

Mendi erronkan edonork parte hartu dezake, Zaldaiko bazkide

izan zein ez. Izen-ematea www.zaldaimenditaldea.org webguneko 'Mendi Erronka' atalean egin daiteke. "Izena ematea garrantzitsua da. Horrela, erronka amaierarako errazago zehaztuko dugu zenbat sari beharko ditugun", azaldu dute antolatzaileek sare sozialetan.

Behin erronka amaituta, zaldai@hotmail.com helbidera bidali

beharko dira argazki guztiak norbere datu pertsonalekin batera.

Iaz, 110 lagunek egin zuten

Iazko erronka 110 lagunek osatu zuten eta urtarril amaieran antolatuko duten Mendi Astearen barruan emango diete saria. Aurtengo erronkako sari banaketa 2023aren hasieran egingo dute.

Faben Ituarte, buruzburu Gipuzkoako txapelkun geratu den pilotari atxondarra

PILOTA • J.D.

"Gertakari bitxia da, oso bitxia", diote Gipuzkoako Pilota Federazioeko iturriek. Eta finala bertatik bertara ikusi zutenek ez dute horrelako beste aurrekaririk gogoratzen. Bizkaiko pilotari bat Gipuzkoako talde batean jokatzen ikustea arraroa bada, zer esanik ez bertako txapelketa batean gailentzen ikustea. Bada, horixe da Faben Ituarte Gonzalezen (Atxondo, Arrazola, 2004) kasua. Joan zen astean,

Txapelketako kanporaketa guztietan hamar tantotik behera utzi ditu aurkariak

Gipuzkoako buruzburuko txapelak jantzi zuen gazte mailan, Lazkaon jokaturiko finalean. 22-6 irabazi zion Odrizola azpeitiarrari. Txapelketako kanporaketa guztietan, 10 tantotik behera utzi ditu aurkariak.

Onenekin jokatuz ikasten da gehien. Horregaitik, Gipuzkoan maila handiagoa zegoela ikusita, Ituartek harako bidea hartu zuen orain urte batzuk. Azpeitiko taldean ibili zen lehenengo, eta gaur egun Lazkaoko LAPKE taldean dabil.

Jokaldia

2022. URTEA. BETIAURRERA!

Lehenengo eta behin, beste ezertan hasi aurretik, urte barri on danori! Eta, aurrera eta zaindu! Egoera latz hau azkenean gaindituko dugu eta. Ez dago besterik.

Momentu honetan, Eskola Kiroleko partiduak geldirik daude. Urtarrilaren 28ra arte ez da partidurik jokatuko. Ia ez den gehiago luzatzen edo beste adin tarteetara gehitzen –federatuetara, adibidez— eta apurka-apurka aurrera egiteko moduan gauden.

Tabirako Baqueko nesken taldea sailkapeneko bigarren postuan dago gaur egun. Mailako liderra den Araski taldearen kontra jokatu zuten azken jardunaldian, Gasteizen, eta ezin izan zioten hasierako emaitzari buelta eman. Dena dela, emakumeen talde nagusia partidu guztiak ari da borroka-



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Tabirako-Baqueko nesken taldea bigarren postuan dago gaur egun. Partidu guztiak borrokatzen ari dira

Zornotzarena denboraldi bikaina ari da izaten. Ligan sailkapeneko lehenengo postuan dago

tzen eta bigarren faserako sailkapena ondo bideratzea izango da helburu nagusia hurrengo jokatuko dituzten partiduetan.

Tabirako Baqueko mutilen taldea ere ondo dabil. Partidu bat galduta barrik, taldeko lan solidarioa, defentsa eta erasoko joko azkarra ditu ardatz

nagusi aurtengo denboraldi honetan. Taldeak oso ondo lantzen du bere jokoa eta jokalariek bakoitzak ondo lantzen du talderako lana. Horrek ematen dio indarra. Aurrera!

Azkenik, Zornotza Saskibaloia Taldea. Aste honetan, Koparako sailkapen partidua jokatu du Basket Navarra ligako azken sailkatuaren kontra. Irabaziz gero, zuzenean sailkatuko zen Kopako finalerako, baina ezin izan zuen lortu. Pena handia da, baina horrek ez du itzaltzen taldeak daraman marka. Denboraldi bikaina egiten ari da. Ligan sailkapeneko lehenengo postuan dago eta goiko postu horietan ibili da ligaren hasiera-hasieratik. Aurrera eta animo, Zornotza!

Oraindik asko geratzen da. 2022. urtea hasi baino ez da egin. Animo eskualdeko gure talde guztiei!



Berrizko jaiak 2022

Urtarrilak 14, barikua

19:00 Dana Moya eta Miren Agur Meabe. Musika eta poesia. 'Begiak zerumugan'. Berrizko Kultur Etxean.

19:30 San Antonio XV. Pilota Txapelketa. Finalak. Olakueta frontoian.

Urtarrilak 15, zapatua

12:00 Pailazoak. Tomaxen abenturak. 'Adi, grabatzen, ekin'. Olakueta frontoian.

18:00 Oihan Vega DJa. Probalekuan.

19:00 Donien Atxa altxatuko dute. Olakueta plazan.

Urtarrilak 16, domeka

11:00 Eskualdeko XL. Barazki eta Fruitu Erakusketa. Probalekuan.

13:00 Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeak. Olakueta plazan.

19:00 Antzerkia. 'Altsasu'. La Dramática Errante. Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilak 17, astelehena

17:30 Musika kontzertua. Txomin Artola. Berrizko Kultur Etxean.

19:30 Nekazaritza-olinpiada. Frontoian. Sarrera doan.



HIERRROS
HR IEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxe: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



Zengotitabengoa kalea,
BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen
eskaintza



www.berriz.eus

Antonio Deuna Jaiak



Berrizko herriak erretiratu berri den Ibai Zabala pilotaria omenduko du San Antonio Pilota Txapelketako finaletan

laz, profesionaletan egindako ibilbideari amaiera eman zion. Lehenengo pilotakadak jo zituen Olakueta frontoian ondo merezitako omenaldia jasoko du berriztarrek

BERRIZ • J.G.

San Antonio XV. Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur, Olakueta frontoian, 19:30ean hasita. Oizpe taldeak antolaturiko finala baliatuz, Berrizko herriak pilota utzi berri duen Ibai Zabala omenduko du. Pilotari berriztarrek Olakueta frontoian ekin zion bideari, sei urte gaur, Berasaluze IV.a Pilota Eskolan. Ondoren, Felix eta Juanito Urribarrigaz Oizpen aritu zen. 2008an, Elorrion debutatu zuen profesional legez. 13 urtean mailarik gorenean jokatu eta gero, iaz utzi zuen pilota. Ibilbide hori aintzat hartuta, etxean omenaldia egingo diote Zabalarari. "Zabalararen agurra Zornotzan izan zenez, herrian omenaldia antolatzea erabaki dugu", azaldu dute Oizpeko arduradunek. Gainera, txapelketa hau berezia da Berrizko pilotariek jokatzeko dutelako.

Finaleko partidua

Pilota Txapelketako finaletan, hirugarren mailan, Etxaniz II-Etxaniz III bikoteak Narbaiza eta Zuberoren aurka jokatu du. Bigarren mailan, Milikuak eta Areitiok Besoitagoena eta Kanpo izango dituzte aurrez aurre. Eta lehenengo mailan, Mikel eta Al-

berdi bikotea Gerenabarrena eta Kastreren kontra lehiatuko da.

Omenaldiaz gainera, egitarau zabala prestatu dute Berrizko San Antonio jaietarako. Gaur bertan, Dana Moya musikariak eta Miren Agur Meabe idazleak *Begiak zerumugan* ikuskizuna eskainiko dute Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan. 2020an kaleraturiko liburuko poemak erreizitatuko ditu idazleak berak, Dana Moya musikaria lagun duela.

**Zabalararen agurra
Zornotzan izan zenez,
herrian omenaldia
antolatzea erabaki dute**

Zapatuan, Tomaxen abenturak pailazo emanaldia izango da. *Adi, grabatzen*, ekin ikuskizuna taularatuko dute, 12:00etan. Muxi pailazoari zinema asko gustatzen zaio. Oso aktore ona dela pentsatzen du, eta Tomax film bat egiteko konbentzitu du. Hari horri tiraka, hasteko, Erdi Aroko eszena bat izango da. Gero, abentura bat mendian. Eta, amaitzeko, Piraten istorioa. Hau dena umore, kantu, joko eta ikuslegoaren parte hartzeagaz. Arratsaldean, Oihan Vega DJ ezagunak



Ibai Zabalak Zornotzan jokatu zuen profesionaletako bere azken partidua.

musikaz alaituko du probalekua. Ondoren, tradizioari eutsiz, Donien Atxa altxatuko dute. Berrizen, Donien Atxa altxatu aurretik, ibilbide berezia egiteko ohitura dute hura lepoan hartuta.

Domekan, Eskualdeko XL. Barazki eta Fruitu Erakusketa egin-

go dute probalekuan. Ondoren, 13:00etan, Iremiñe eta San Lorenzo dantza taldeek emanaldia eskainiko dute Olakueta plazan. Arratsaldean, La Dramática Errante antzerki taldeak *Altsasu* antzezlan taularatuko du Berrizko Kultur Etxean. Musika eskaintzari dago-

kionez, Txomin Artola abeslariak kontzertua emango du astelehenean, 17:30ean, Kultur Etxean. Nekazaritza-olinpiadekin amaituko dituzte jaiak, astelehenean. Gehienez sei taldek eman dezakete izena. Talde bakoitzean bost lagunek parte hartuko dute.

CERAMICAS
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com


pedrojuan
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46


GAER  **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ


keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometrizentroa.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ABADIÑO: Etxea. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala eta garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m²-ko lorategia. Tresnak gordetzeko txabola. **415.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

UNDATORRE: Erdi berria. Altua. Apartamentua. Terraza. Garajea. **C.E.E= E. 179.900 €**

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. C.E.E.=F. ALOKAIKUAN EROSTEKO AUKERAREKIN **600 € / 180.000 €**

DURANGO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Garajea. **C.E.E= E. 281.600€**

LANDAKO: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. **C.E.E=F. 258.000 €.**

ZALDIBAR: 114 m². Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Aire egokitua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42m²-ko ganbara. Etxebizitzarekin bat egiteko aukera. Txokoa. Ikasgela. **C.E.E.=F 252.000 €.**

DURANGO: 2 logela (lehen 3 logela) Komuna, Sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. Berriztatua. **C.E.E=E 145.000 €**

DURANGO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=G** Aparkaleku pribatua. **85.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Igogailua. **C.E.E=F 149.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 199.500 €.**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E: F 130.000 €**

MADALENA: 132 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Lehio berriak. Ganbara. C.E.E=E 125.000 €

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: Pisu altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G 114.000 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F. 140.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

ZALDIBAR: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Berriztatua. Jantzia. Igogailua. **C.E.E=F 140.000 €**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

GARAI: Baserrria. 237 m². 15.624 m²-ko lursaila. **C.E.E=G**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Alluitz kalea. 3 logela, 2 komun eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garaje itxia.

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobe.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserrri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserrri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserrri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserrria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIKUAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

IURRETA 70 m² 3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E: E negoziagarria

DURANGO 52 m²
ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Pisu altua. Etxe erdiak kanpora ematen du. Herrigunetik oso gertu. Instalazio elektrikoa eta iturgintzakoa berri-berriak. ITE oraintsu pasatutakoa. Igogailua.
155.000 € C.E.E: E

DURANGO 83 m² 3 logela
ANDRA MARI: Atikoa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Igogailua. Altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoalde). Herrigunetik oso gertu. Ezin hobe. Orain 10 urte berriztatua. Zoru berogailua.
265.000 € C.E.E: Bidean

IURRETA 52,69 m²
DANTZARI: Egongela, sukalde jantzia. 3 logela, despentsa eta komuna. Igogailua. Altua. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde). Ikuspegi ona. Herrigunetik oso gertu, zerbitzu gunez inguratuta. ITE oraintsu pasatutakoa.
153.000 € C.E.E: E

MATIENA 58 m² 3 logela
TRAÑAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia (berriztatua), 3 logela eta komuna (berriztatua) eta despentsa. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Aparkalekua. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatutakoa.
124.000€ C.E.E: G

DURANGO 58 m² 3 logela
NAFARROA PLAZA (SAN FAUSTO): Egongela, sukalde jantzia (berria), 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialdea). Berriztatua. Eraberritze berria, gasa sartzera falta da. Ingurune lasaian kokatua, herriguneko sarrera-irteera batetik gertu. ITE pasatuta.
129.600 € C.E.E:E

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua.

LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bulegoa. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **112.000 € / E.E.Z= E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

Goienkalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z= G**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

IURRETA

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

ZALDIBAR

MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

BERRIAK - ABADIÑO
ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitze. 180.000 €

Botikak

BARIKUA, 14 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

ZAPATUA, 15 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA
Trañabarren 15. - ABADIÑO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 16 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 17 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 18 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-
agurren artean **tarta bat zotz egingo
dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali
kontaturako datuak zorion-agurrekin
batera.



Abenduaren 27an 6 urte egin zituen
Garik. Zorionak eta mosu potolo
bat etxekuen partez.



Zorionak, **Katrin,** konturatu
orduko bederatzi urte potolo egin
dozuz. Zorionak, **Xuban,** eskuko
atzamarra beste urte egin dozuz.
Mutil handixe eitten zabiz. Mosu
erraldi bat etxeko guztion partetik.
Asko maitte zaittuegu!!



Zorionak, maitiak! Handitzen
handitzen... **Intzak** 13 urte, **Iratik**
10 eta aitaxo **Igorrek** beste bat
gehixau egin dozuez. Aurten arrarue
izan bada be biher dan moduen
ospatuko du, hori seguru! Pila-pila
maite zaittuegu!

Eskelak



Gaizka Lauzirika
Azkarraga




Gaizka, senide eta lagun, emon
deuskuzun dana ezinezkie eta
berbaz edo idatziz eskertzie eta
zuri bueltetie, baina eskerrik
asko gure bizitzaren parte
izateagaitik.

Lanperriko familia



Gaizka Lauzirika
Azkarraga




Zuk eragindako
banderien hotsa
eta zure barrie
beti goguen
eukiko doguz.

Jantzako lagunak



Egoitz
Uberuaga Aranburu



1986-01-13 / 2019 - 01 - 13
Maitasune ez dau lurrek urruntzen,
urek apurtzen, ez hotzak izozten.
Gaur, atzo eta bihar,
han eta hemen
maitte zaittugu,
maiteko zaittugu.

Etxekoak

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 12° / -1° ☀️

DOMEKA 🌧️ 12° / 0° ☀️

ASTELEHENA 🌧️ 11° / 1° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 11° / 1° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 12° / 2° ☀️

EGUENA 🌧️ 12° / 2° ☁️

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com


#salduenak

**1^a**
DENA AMETSA DEN
IRUDIPENA
Leire Vargas
(Elkar)

**2^a**
ASTERIX ETA GRIFOA
Jean-Yves Ferri & Didier Conrad
(Salvat)

**3^a**
MIÑAN
Ametz Arzallus & Ibrahima Balde
(Susa)

**4^a**
ERAIKUNTZARAKO
MATERIALA
Eider Rodriguez
(Susa)

**5^a**
KARENA
Alaine Agirre
(Elkar)

“Irakasteko orduan gogorra izan naiz beti, baina inoiz ez zait lanik falta izan”

Manolo De los Riscosek 45 urte eman ditu autoeskolako irakasle. Azaroan erretiroa hartu zuen eta itxi egin zuen Abadiñoko Traña-Matienan zuen autoeskola



Manolo De los Riscos Duran
Autoeskola gidaria
IZURTZA | 1953

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Manolo De los Riscos Antequera (Malaga) jaio zen arren, bere familia osoa Izurtzara etorri zen berak urte bi zituela. Autoeskolako irakasle modura lan egin du lau hamarkadatik gora. Durangon lehenengo, eta Abadiñon gero. Traña-Matienan auzoan, autoeskola zabaldu zuen orain 21 urte. De los Riscos-ek bere lloba izan du azken ikaslea.

Traña-Matienan gutxi dira gidatzeko baimena zugaz atera ez dutenak.

Egin ditudan kalkuluen arabera, 4.000-5.000 ikasle izango nituen urte hauetan guztietan.

Makina bat kilometro egindakoa zara. Milioika! Garai batean, 50.000-

60.000 kilometro egiten genituen urtean, batez beste. 45 urtean, atera kontuak! Kotxea aldatzen genuen hiru urte pasatu eta gero. Dena dela, azken urteotan askoz ere kilometro gutxiago egin ditut.

“Garai batean, 50.000-60.000 kilometro egiten genituen urtean, batez beste. 45 urtean, atera kontuak!”

Askok aldatu da autoeskoletan jarduna?

Bai, asko. Lehen, oso esker onekoak ziren ikasleak. Gidatzen ikaste-

ra zetorren jendea. Gaur egun, azterketa egitera joan gura dute zuzenean; azterketa gaintzera datoz. Arduragabekeria handiagoa dago. Adibidez, talde batek Bilbora praktikak egitera joan behar genuenean, beti eskaini diet aukera etortzeko, ikusi eta ikasi zezaten. Bada, gertatu zait atzean jarri eta lo geratzea; lau bat bider gertatu zait.

Izan duzu ikasle ilustrerik?

Bai! Igor Urien auto gidaria, Ander Iturraspe eta Ustaritz Aldekoa-Otalarra futbolariak, eta Andoni Cedrun ere bai, adibidez. Dena dela, Abadiñon askori erakutsi diet gidatzen. Badut gogoan beste mutil bat ere, gidatzeko baimena lortzeko ahale-

gin itzela egin behar izan zuena; eta autoan 100 ordutik gora egin behar izan zituen ikasle bat ere bai. Irakasteko orduan gogorra izan naiz beti, baina inoiz ez zait lanik falta izan. Zerbait ondo egingo nuen!

Pasarte asko gordeko dituzu.

Liburu bat idatzeko beste! (barrez) Maitasun handiagaz gogoratzen dut ikasle bat. Berak ia ez zekien gaztelaniaz, eta nik are gutxiago euskaraz. Bada, behin autoan gindoazela berriro jaio ginen: bost lagun gindoazen kotxean, autobidean, eta, Basaurira sartzeko, bolante-kolpea eman zuen eta esku-frenoari eman behar izan nion. Autoak 360 graduko buelta eman zuen. Atzetik furgoneta bat zetorren arren, ez zen ezer ere gertatu eta Durangora bueltatu ginen. Biharamunean, inork ere ez zuen Bilbora joan gura. Askok kostatu zitzaion gidatzeko baimena lortzea, baina lortu zuen. Bohemiazko kristalezko kanpaitxo bat oparitu zidan. Bestalde, gidatzeko baimena egun berean atera zuten Abadiñoko senar-emazteak ere gogoan ditut; emaztea eta biok afaltzera gonbidatu gintuzten.

“Gidatzeko baimena egun berean ateratako senar-emazteek afaltzera gonbidatu gintuzten emaztea eta biok”

Orokorrean, zelan gidatzen dugu?

Zirkulazio arauetako errespetu handiagoko falta da. Autoeskoletan arau horiek ikasten ditugu, baina segituan ahazten zaizkigu. Bost zentzumenekin gidatu behar da. Errepidean arduragabe asko dabil.

Zer izaten da gaxena ikasteko?

Pertsona bakoitza mundu bat da. Baina futbolari izan direnei esan izan diet zelan den posible kotxeagaz hain baldarrak izatea, eta gero baloia hain ondo kontrolatzea baita korrika egitean ere. (barrez)

Orain zer egingo duzu?

Zeozor bai, hori seguru! Ez dakit geldirik egoten eta. Custom moto bat erosi dut eta haregaz ibiliko naz. Pasio dut motoan ibiltzea.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ jubilatua



Argiñeta, noiz?

Javier Hurtadok, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak, turismo jasangarritasuneko lurralde-plana aurkeztu zuen lehen faserako Europatik datozen 24 milioi eurotako partida eta gutzira 67 milioi euro 2023ra arte Euskal Herrian turismoa bultzatzeko.

Lehenengo 24 milioietatik 11,7 milioi geratuko dira Bizkaian, honela banatuta: Bilboko Udale-rako 4,7 milioi, Enkarterrietarako milioi bat, Gaztelugatxerako 1,9 milioi, Urdaibairako 2,1 milioi, Lekeitiorako milioi bat eta Lea Ibararako beste milioi bat

Oso ondo, baina non geratzen da Argiñetako Nekropolia, gaur egun Bizkaiko eta Euskal Herriko arkeologiaren esparruan lehen mailako ondare-elementua izanik, ezinbestekoa Erdi Aroa eza-gutzeko aztarnategirik garrantzitsuena? Egunero pertsona asko bertaratzen da daukagun altxor hau ikustera, eta zer aurkitzen dute? Baselizako portikoa itoginez beteta, egoera txarrean baitago, zaborrak non-nahi, kotxe eta motoen gurril markak derrapatzen ibili direlako, etab., etab., etab.

Argiñetako Kofradiak, aho batez onartutako batzar batean, Baseliza eta ingurua udalaren esku utzi zuen honek babes eta zaindu dezan. Nora begira daude udala, Mankomunitatea eta Aldundia?

Asmo handiak kaleratu dira, baina gauza gutxi egin da. Bertako hilobiak eta aztarnak gizaldiak eta gizaldiak zain egon dira eta daude daukaten garrantzia emateko. Turismoa bultzatzeko asmoa badago eta ondasuna bertan badaukagu jar ditzagun behar diren baliabideak etekin handiagoko ateratzeko. Lehenengo deialdi honetan Argiñeta ez da kontuan hartu, baina inguru hori maite dugunok ozenki eskatzen dugu hurrengo deialdietan hitzetatik ekintzetara pasatzea eta inguruak daukan balioa emateko egin beharrekoa egitea.

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Erdu Gurekin! Berrizko euskal eskola publikoa

LEARRETA-MARKINA eskola

Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ

Tel.: 946 824 344 | 014097aa@learretamarkinaberriz.com

www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI

Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ

Tel.: 944 287 976 - 015073aa@hezkuntza.net

www.berrizbhi.com

AURREMATRIKULA
Urtarrilaren 17tik
28ra arte

2 urtetik 16 urtera · Jantokia eta garraioa · Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz